

## Funtsezko baliabideak.

**Baliabide fisikoak:** ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko erabiltzen diren baliabideak dira, baina, lehengaiak ez bezala, ez dira produktuaren zati bat, baizik eta produktua ekoizteko erabili den bitarteko bat

- Zerbitzariak: gure aplikazioan materiala izateko zerbitzari batzuk behar izango ditugu. Bezeroak gure aplikazioko materialak ikusi al izateko beraiek zerbitzari hauetara sartu beharko dira, hemen egongo direlako dokumentu, bideo, edo aurkezpenak.
- Wifi sarea: gure zerbitzariak erabili ahal izateko interneterako konexioa beharko dugu. Horretarako gure herriko enpresa batekin jarri gara harremanetan eta berak hornituko gaitu. Wifi-az aparte telefono bat ere kontratatuko dugu, sare sozialekin edo posta elektronikoarekin moldatzen ez dire jendeak errastasan gehiago izateko gurekin harremanetan jartzeko orduan. Posta elektronikoari begira domeinu bat izango dugu, langile bakoitzak berea izango du eta horietaz aparte beste bat, enpresarena.



**Giza baliabideak eta baliabide intelektualak:** giza baliabideak, adiera zabalean, erakunde bat osatzen duten pertsonen ahalmenen multzoa da.

- Web disenatzailea: gure enpresa sortzeko behar beharrezkoa da web garbi eta intuitiboa sortzea, horretarako web disenatzaile baten inbertitzea komeni izango litzateke.
- Community managerra: gaur egun sare sozialek eskaintzen diguten promozio-aukerak ez aprobeztatzea oso idea txarra izango litzateke. Gaur egun, enpresek haien sare sozialak kudeatzeko profesionalak kontratatzen dute, *community manager*-rak hain zuzen ere. Normalean haien bezeroekin erlazio zuzena dute managerrek, eta beraien emaitzak oso eraginkorrak dira.
- Publizitatea: community managerraz gain gure aplikazioa zabaltzeko metodoa sare sozialetan eta bestelako webguneetan iragarkiak jartzea da. Gure bezeroak sare sozialak asko kontsumitzen dituztenez gure enpresaren berri izango dira.



Gure enpresak zerbitzuak bakarrik eskaintzen ditu, eta gainera ez da kokatzen leku fisiko batean; hori dela eta, ondasunak ekoizten dituen enpresa batek baino baliabide gutxiago behar ditugu.

Gainera, langileak (guk) etxebizitzatik biharra egiteko aukera izango dugu, teknologia berriak eta gure enpresaren izaera aprobetxatuta.

**Finantza baliabideak:** Gure enpresa aurrera eramateko diru laguntzak eskatuko ditugu, Lanbidek eskeinitako Ekintzaileei Laguntzeko Laguntzak hain zuzen ere.

Noctuaren bazkide guztiak 18 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago ditugunez 2500€ jasoko ditugu pertsonako.